

FUNTSEZKO JARDUERAK

- Jatekoen eskarien maiztasunaren arabera prezio ezberdinak ezarriko ditugu;

eguneko eskaria (preziorik altuena izango dute), asteko eskaria, hileko eskaria eta urteko eskaria ezberdindu ditugu.

Ohiko bezeroei produktu eta zerbitzuetan prezio baxuagoak ezarriko diegu.

-Menuetan lehenengo platerra, bigarren platerra eta postrea eskainiko dugu. Hala ere, aukera dago hiru platerretatik bat soilik edo bi eskatzeko.

-Jatekoak borosilicatoko kristal ontzietan eramango ditugu, eta hurrengo eskaria eramaterakoan jasoko ditugu. Kristal mota hau mikroondasean sartu daiteke, eta bertan berotu daiteke. Bakarkako eskaria egiten dutenen kasuan beraiek lokalera ekarri beharko dituzte edo gu pasatuko gara ontzien bila.

- Kalitatezko janaria eskainiko dugu, etxekoa bezalakoa; produktu ekologikoekin eta km 0 ko produktuekin egindakoa.

- Bezeroa modu goxoan zainduko dugu beti, eta fidelitatea sarituko dugu deskontuak eskainiz.

- Menu anitzak edukiko ditugu gure bezeroak aukera zabala eduki dezaten.

- Gabonetan eta asteburuetan menu bereziak izango ditugu.

- Egunero sobratzen den jatekoa ez dugu botako, Karitasari emango diogu.